

Banderek estali ezin dutena

Koldo SAGASTI

Duela pare bat aste Espainiako futbol selekzioaren beste lortu bat pairatu behar izan genuen. Talde gorriak Europako Koparen finala irabazi izanak behinola ezohikoa eta egun normalizatzeko bidean dagoen irudia ekarri zuen gure karriketara: elastiko eta bandera gorri-horriak naturaltasun osoz erakusten zituzten herrikideak, bide batez, tokian tokiko udalek okasiorako propio egokitu-tako pantaila erraldoiek erakarrita eta hauspotuta. Bat baino gehiago, seguruenik, ariketa pedagogiko batean, saiatuko zen azaltzen seme-alabei auzokoen poza ez dugula partekatzen, eta piperpotoak ez gaituela ordezkatzeko, eta zerbait ordezkatzekoan ehunka urteko historia odoltsua ordezkatzeko duela, Logroñoko fede-epaiketetan sutara kondenatutako sorginena, amerikar kontinenteko garbi-

keta etnikoarena, 36ko estatu kolpe faxistarena eta ondorengo diktadurarena, gure hizkuntzaren ukazioarena... mende mende odolez izkiriatutako historia kirolaren liluraz zuritu nahian dabilta. Ez da kontu berria. Hitlerrek ere, kirol-ikuskitan masiboen eraginkortasunaz jakitun, 1931ko Berlingo Olinpiar Jokoak erregimen naziari gorazarre egiteko baliatu zituen. Antzera jokatu zuen Jorge Rafael Videlak, 1978an Argentinan jokatu zuen Munduko Futbol Txapelketa diktaduraren krimenak zuritzeko baliatuz.

Atzo Olinpiar Jokoen beste edizio bat jarri zuten abian, Frantzian. Hasierako ekitaldiko desfileak sorpresak utzi dizkigu. Zenbaitetan internetera jo behar izan dugu, besteak beste, Antigua eta Barbuda bezalako ordezkariak mapamundian kokatzeko. Beste batzuetan banderaren baten falta sumatu dugu. Eta bat edo beste

sobera. Aurtengo kasu lazgarriena, Israelena. Erregimen sionistak zazpi hamarkada daramatza garbiketa etniko proiektu bat gauzatzen Palestinan, eta hamar hila-beteko genozidio bereziki zitala. Giza eskubideen urraketa nabarmen horiek olinpismoaren balio oinarritzkoenekin talka eginagatik ere, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak ez du motibo nahikorik ikusi israeldarren parte hartzea debekatzeko, eta historian zehar beste askok egin duten bezala, kirol ekitaldi hori euren krimenak zuritzeko baliatuko dute. Momentu historiko honek erantzukizuna eskatzen digu, eta kirol erakunde gorenak erakutsi duen utzikeriaren aurrean, kirol komunitatearen ardura behar dugu, Tommie Smithek eta John Carlosek 1968ko Mexikoko Olinpiar Jokoetan egin zuten modura, injustiziaren normaltasuna apurtzeko. •

«Western» zaharretan bezala

Asier Aiestaran

Duela egun batzuk Donald Trumpen aurka egindako erasoak berriz ekarri ditu gaurkotasunera historian zehar AEBetako politikarien aurka egindako atentatuak. Zerrenda luzea da: lau presidente hilak (Abraham Lincoln, James A. Garfield, William McKinley eta John F. Kennedy), beste hainbeste tirokatuak (Franklin Roosevelt, Harry Truman, Gerald Ford eta Ronald Reagan), Martin Luther King edo Malcom X bezalako ekintzaileen hilketak...

Berez egoera larriak dira, herrialde baten egitura politikoa kolokan jar ditza-

ketenak, baina estatubatuarrek bere-berearen duten ikuskizunaren kulturak halako distira liluragarri bat ematen die gertakari horiei. Zenbat film, dokumental eta telesail ez ote ditugun ikusi JFK, Etxe Zuri, FBI, zerbitzu sekretu eta antzekoen inguruan. Ikusi ez, irentsi.

Eta justu egun hauetan, kasualitate hutsez, ezagutzen ez nuen Salvador Allende politikari txiletarraren pasadizo bat deskubritu dut. 1952ko abuztuaren 6an pistola-duelo bat egin omen zuen Raul Rettig Partido Radical alderdiko senatariaren aurka. Antza denez, lege proiektu baten inguruan haserretu zi-

ren bi politikariak, eta arazoa “western” zaharretan bezala konpontzea erabaki zuten. 1952an izan zen, ordea, ia atzo goizean, eta diotenez, amaiera ere nahiko erridikulua izan zen: tiro egiteko unean Allende labaindu eta erori egin omen zen, eta ez zen zauriturik egon.

Auskalo horrela gertatu ote zen, ziur asko ez, baina eszena buruan iltzatuta daukat orain, eta imajinatzen dut zer ote litzatekeen pistola-duelo bat Donald Trump eta Joe Bidenen artean, edo Trump eta Kamala Harrisen artean, *prime-time*-ean, eta mundu guztia telebitartara itsatsita. Bat, bi, hiru, lau... •